


2011n Euskal AEko Herri Administrazioek 2.512 milioiko defizita izan zuten, BPGren %3,8

Inbertsio publikoen %95,9 Euskal Administrazioek egin zuten, eta gainerako %4,1 Administrazio Zentralak

Euskal AEko Herri Administrazioen (Euskal administrazioen, Estatuarenaren eta Gizarte Segurantzaren) defizita 2.512 milioikoa izan zen 2011n nazio-kontabilitatearen terminoetan, BPGren %3,8, aurreko urtean baino ehuneko 4 hamarren gutxiago, Eustaten datuen arabera.

2011ko defizita 2010ekoa (2.750 milioi) baino 240 milioi gutxiago izan zen. Estatuak, osotasunean, BPGren %9,4ko defizita izan zuen, eta 27-Europar Batasunak %4,4koa; Euskal AEko Herri Administrazioena bien azpitik.

1- grafikoa: herri administrazioen finantza-gaitasunaren (+) edo finantza-beharraren (-) bilakaera (BPGren %)



Iturria: EUSTAT. Herri-administrazioen kontu ekonomikoak.
EUROSTAT

Euskal AEko Herri Administrazioen defizitaren murrizketa (finantzatzeko beharra) ez-finantzetako enpleguak ez-finantzetako baliabideak baino gehiago murriztu zirelako izan zen. Baliabideak %0,9 murriztu ziren 2010aren aldean eta ez-finantzetako enpleguak %1,7.

Pisu handieneko **ez-finantzeta**ko **baliabideen** analisiak erakusten du gizarte-kotizazioak, zeinak diren baliabideen %33,4, %1,5 hazi zirela; eta Errenta eta ondare zergengatiko diru-sarrerak –baliabideen %25,6- %6,6. Produktzioaren eta inportazioen gaineko zergak –guztien %28,2- %3,3 murriztu ziren; beste transferentzia korranteen eta kapital-eragiketen diru-sarrerak –guztien %7,0- %24,3 murriztu ziren. Honekin guztiarekin 2011n erregistraturiko ez-finantzeta ko baliabideen gutxirakoa 213 milioi gutxiago izan da 2010ean baino.

Ez-finantzetako **enpleguen** atalean, gizarte-prestazio eta transferentziak, zeinak enpleguen %43,7 diren, %1,8 hazi ziren 2010aren aldean, pisu erlatiboan ere hazi zirelarik: 2010ean ez-finantzeta ko enpleguen %42,5 ziren; 2011n %43,9. Soldatakoen ordainketa eta bitarteko kontsumoa –enpleguen %38,7- %0,1 eta %1,8 murriztu ziren 2010aren aldean; ekitaldi honetan aurreneko aldiz izan da jaitsiera kontu hauetan 2000. urtetik. Honekin guztiarekin 2011n erregistraturiko ez-finantzeta ko enpleguen gutxirakoa 453 milioi gutxiago izan da 2010ean baino.

1. taula: Euskal AEko herri administrazioen aurrezki garbia eta finantza-gaitasuna (+) edo finantza-beharra (-) 2011 (milaka euro)

	Finantzazkoak ez diren baliabideak	Finantzazkoak ez diren erabilerak	3.- Aurrezki garbia	4.- Finantzatzeko ahal. (+) eta beh. (-)
Herri administrazioak	23.921.864	26.433.508	-534.905	-2.511.644
EAEn dauden Estatuko administrazioa + Gizarte Segurantzak	10.237.712	10.769.783	-280.739	-532.071
EAEn dagoen Estatuko administrazioa	2.186.547	1.867.067	572.122	319.480
EAEn dagoen Gizarte Segurantzak (**)	8.071.852	8.923.403	-852.861	-851.551
EAEko administrazioak (*)	15.881.967	17.861.540	-254.166	-1.979.573
Eusko Jaurlaritza	9.285.794	10.941.851	-779.881	-1.656.057
Araba / Álava	2.499.608	2.557.571	111.376	-57.963
Bizkaia	8.016.896	7.828.740	578.060	188.156
Gipuzkoa	4.726.779	5.180.488	-163.721	-453.708

Ikusi ohar metodologikoa

(*) Eusko Jaurlaritzaren barruan honakoak sartzen dira: adm. erak. autonomoak, EHU, Osakidetza era sozietate publikoak. Araba, Bizkaia eta Gipuzkoaren barruan honakoak sartzen dira: foru aldundiak eta horien adm. erak. autonomoak era sozietate publiko batzuk; eta Toki erakundeak

(**) Gizarte Segurantzaren barruan daude: Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusia, Gizarte Segurantzako Institutu Nazionala, Itsasoko Gizarte Institutua, INEM-Estatuko Enpleguaren Zerbitzu Publikoa, LI mutuak, LG eta Soldatak Bermatzeko Fondoa (FOGASA).

Iturria: EUSTAT. Herri-administrazioen kontu ekonomikoak

Instituzioen analisisan, Estatuaren Administrazio Erregionalizatuak 319 milioiko saldo positiboa du 2011n eta Gizarte Segurantzak Erregionalizatuaren saldo negatiboa 2010eko 860 milioitik 2011ko 851tara pasa da; izan ere, ez-finantzeta ko baliabideak ez-finantzeta ko enpleguak baino proportzio handiagoan hazi ziren; zehazki, Gizarte Kotizazioengatiko baliabideak %2,0 hazi ziren eta Gizarte Prestazioengatiko enpleguak %1,6.

Euskal Administrazioetan finantzazio-beharra 1.980 milioikoa izan zen 2011n (BPGren %3,0); 2010ean 2.148 milioi izan ziren (BPGren %3,3). Hona hemen banaketa:

- Eusko Jaurlaritzako ente-multzoen saldo negatiboa 1.606 milioi ziren 2010ean eta 1.656 milioi 2011n.
- Arabako foru eta udal administrazioetan finantza-beharra 2010eko 86 milioitik 2011ko 58ra jaitsi zen.
- Bizkaian, 2010eko 137 milioi negatiboetatik 2011ko 188 positiboetara pasa zen.
- Gipuzkoan, saldo negatiboa hazi egin zen 2010eko 319 milioitik 2011ko 453tara.

2. taula: Herri administrazioen parte-hartzea azken eskarian Euskal AE (milaka euro) 2007-2011

	2007	%	2008	%	2009	%	2010	%	2011	%
Azken kontsumoko gastua	49.376.152	100,0	51.322.850	100,0	50.639.505	100,0	51.780.691	100,0	52.826.737	100,0
Herri adm.en azken kontsumoko gastua	9.995.041	20,2	10.978.096	21,4	11.653.562	23,0	11.726.425	22,6	11.647.005	22,0
Kapital-eraketa gordina	20.706.415	100,0	20.838.703	100,0	17.485.687	100,0	16.695.047	100,0	16.544.784	100,0
Herri adm.en kapital-eraketa gordina	1.880.579	9,6	2.065.866	9,9	2.499.786	14,3	2.476.320	14,8	2.111.136	12,8
Barne-eskaria	70.082.567	100,0	72.161.553	100,0	68.125.192	100,0	68.475.738	100,0	69.371.521	100,0
Barne-eskari publikoa	11.875.620	17,0	13.043.962	18,1	14.153.348	20,8	14.202.745	20,7	13.758.141	19,8

Iturria: Eustat. Administrazio Publikoen Kontu Ekonomikoak eta Kontu Ekonomikoak, 2008-2010 behin-betikoak eta 2011koak aurrerapena. Oinarria, 2010

Barne-eskari publikoaren parte-hartzea Euskal AEko barne-eskari osoan jaitsi egin da: 2010ean, %20,7, 2011n %19,8.

Murrizketa izan da bi osagaien parte-hartzea txikitu delako. Herri Administrazioena Euskal AEko Azken Kontsumoaren Gastuan 2010ean %22,6 izan zen, 2011n %22,0. Euskal AEko ekonomiaren osotasunean, Administrazio Publikoen pisua Kapital Eraketa Gordinean arindu egin da: 2010eko %14,8tik 2011ko %12,8ra.

Inbertsioen %95,9 Euskal Administrazioek egin zuten, eta gainerako %4,1 Erkidegoko Administrazio Zentralak.

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tel.: 945 01 75 62

Herri administrazioen kontu ekonomikoen gaineko prentsa-ohar gehiago

Herri administrazioen kontu ekonomikoen gaineko datu-bankua